

HEDATU

euskararen arnasmugareei
buruzko hezkuntza proiektua



0.AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. HEDATU: UEMArene hezkuntza proiektua	2
3. Testuingurua	3
4. Ibilbidea	5
5. Hezkuntza ekologia eta arnaguneak	7
6. Hezkuntza proiektuaren edukiak	9
7. Hainbat tailer osagarri	13
8. Hezkuntza ez arautua	15

1. SARRERA

Txosten honetan Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) HEDATU hezkuntza proiektua aurkeztu nahi dugu. Herritarren sentsibilizazio eta aktibazioan eragiteko asmoz 2015ean egindako ikerketa batetik sortutako proiektua da. Gaur egun, HH tik batxilergora bitartean lantzen den proiektu integrala da.

Hain zuzen ere, txosten honetan jaso ditugu hezkuntza proiektuaren nondik norakoak, testuingurua, ibilbidea eta kokapen teorikoa. Gainera, ziklo bakoitzean lantzen ditugun edukien berri ematen da.

2. HEDATU: UEMAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea 1991 urtean sortu zen Aizarnazabalen, eta bertako kide izateko udalerriek %70eko euskararen ezagutza izan behar dute gutxienez. UEMAK ia 30 urteko ibilbide luze honen hasieran batez ere administrazioa euskalduntzen egin du lan, eta aurrerapauso nabarmenak lortu ditu eremu horretan. Azken urteotan, ordea, herri hauetako bilakaera soziolinguistikoa ez dela ona ikusita, herritarrei begirako ekimenak indartzen ahalegin berezia egin du. Hain zuzen ere, UEMAREN hezkuntza proiektua testuinguru horretan kokatu behar da, herritarren heziketa soziolinguistikon eragin nahian.

Ondorengoak dira UEMAKO teknikariek hezkuntza arautuan topatzen dituzten hutsune nagusiak.

- Ikastetxeetan soziolinguistikari dagozkion gaiak ez dute pisu askorik izan tradizionaliki.
- Testuinguru eleanitzean bizi diren ikasleek euskararen normalizazio prozesua ez dute modu sakonean barneratuta: galera prozesua, berreskuratzeko beharra, hizkuntza hautuak kontzienteki egin beharra...
- Gaur egun, irakasteko moduaren eta ikastetxearen arabera alde handiak daude soziolinguistika lantzerakoan.
- Hizkuntza Ekologiaren diskurtsoa oraindik ez da barneratu hezkuntzaren eremuan.

Euskararen arnaguneen kontzeptua ez dago zabaldua, eta, ondorioz, euskaldunen hizkuntz komunitatearentzat betetzen duten lidergo papera ere ez da ezaguna askotan.

- Udalerri euskaldunek ez dute kontu hauek lantzeko irizpide bateraturik, eta komenigarria da ikuspegi bateratu hori lantzea.
- Irakasle guztiek orokorrean, eta hizkuntzetakoek bereziki, soziolinguistika esparruko formazio beharra daukate.
- Unibertsitateak ez dauzka udalerri euskaldunetan egin daitezkeen ikerketak identifikatuta.

3. TESTUINGURUA

Euskarak badu nagusi den lur eremua. Izan ere, hainbat udalerritan, oztopoak oztopo euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu da eta bertako herritarrek euskaraz bizitzeko hautua egina dute. Udalerrri horiek garrantzitsuak izan dira euskararen garapenerako, eta euskararen normalizazioa lortzeko bidean ere ekarpen ezin hobea egin dezakete, estrategikoak izanik.

Udalerrri euskaldunak deitzen zaie bertako herritarren %70 baino gehiagok euskaraz dakiten herriei. Udalerrri horiek bereziak dira hizkuntzaren ikuspegitik: euskara hizkuntza gutxitua izanik ere nagusi da eremu horretan. Eta aldeko egoera ematen den leku horietan beharrezkoa da hizkuntza politika berezituak egitea. Beste zonaldeek baino neurri aurreratuagoak behar dituzte eta hizkuntza politika orokorraren erdigunean kokatzea ezinbestekoa da. Izan ere, lurralde antolaketa edota hirigintza bezalako arloek ere eragin zuzena dute bertako bilakaera soziolinguistikoan.

UEMAren helburua da egungo errealitatetik abiatuta eta tokian tokiko beharrei erantzungo dien politika eraginkorrak abian jartzea, hizkuntza politika ausarta, alegia. Finean, euskararen arnaguneak indartu eta zabalduz Euskal Herri euskalduna eraikitzea da helburu. Horregatik eta horretarako, udalerrri euskaldunek izan duten bilakaeraren azterketa sozioekonomikoa eta soziolinguistikoa egiten ari da UEMA etengabe.

Hego Euskal Herriko udalerrri euskaldunen ia erdia UEMAko kidea da. Arabako Aramaio, Bizkaiko 28 udalerrri, Gipuzkoako 44 eta Nafarroako 13. UEMAko udalek elkarlanean dihardute euskara sustatzeko bidean. Izan ere, aipatu udalerrriek elkarrengandik urrun egonda ere badute antzekotasunik: euskarak batzen ditu.

Lurgune euskaldunean euskararen indize altuenak dituzten herriak biztanle gutxienak dituztenak dira, oro har. Herri txiki horiek, hizkuntza errealitate ahulagoa dute, alegia,

aldaketen aurrean sentikorragoak dira. Beraz, hauskortasun maila altuagoa dutela baieztatu daiteke. Azken hamarkadetan izandako aldaketa sozioekonomikoek eragin zuzena izan dute arnasguneetan, eta hori, lurralde antolaketa eta lurralde plangintzaren politikaren ondorio izan dela baieztatu daiteke. Egiten den guztiak eragina baitauka hiztunengan, eta, ondorioz hizkuntzaren ikuspegi orokorrean. Udalerrri euskaldunek izan duten bilakaera soziolinguistikoari lotzen bagatzaizkio, esan behar da datuak kezkarriak direla; atzerakada gertatu da bai euskararen ezagutzan baita erabileran ere.

Faktore asko daude tartean, besteak beste; mugikortasunaren areagotzea, azken bi hamarkadetako hirigintza jarduera bizia, migrazio saldoaren handitzea eta udalerrri euskaldunen izaera industrialia.

Laburbilduz, udalerrri euskaldunetan euskaraz bizi dira herritarrei esker. Belaunaldi belaunaldi, euskaraz bizi izan dira naturaltasunez. Eguneroko bizitzan euskara lehenetsi dute, eta euskararen bizitasuna mantentzea lortu dute, gaur egun arte. Euskal Herri euskalduna helburu, norabide horretan estrategikoak dira udalerrri euskaldunak eta ekarpen garrantzitsua egiten dute euskararen normalizazioari begira, beraiek baitira euskararen hedatzearen eragile eta erantzule nagusiak, hizkuntza ohitura osasuntsuen zabaltzea eta efektu biderkatzailea proboka dezaketenak. Erreferenteak. Erreferentzialtasun hori lantzerantz begira ordea, eta udalerrri euskaldunetan osotasunez euskaraz bizitzeko badago zer landua. Udalerrri euskaldun guztiak indartu behar ditugu arnagune bihurtzeko bidean, datu soziolinguistikoek adierazten baitute azken hamarkadan euskararen ezagutzak atzera egin duela, baita erabilerak ere.

Bide horretan, UEMAko kide den udalerrri bateko hezkuntza komunitatea eredu eta aitzindari izango da, udalen euskalduntzean; hezkuntza baita herri baten eraikuntzaren oinarri, jendarte kohesiorako esparru, eta hizkuntza ekologiaren bidetik euskara da bere kohesiorako tresna eta egunerokoan lanabes. Euskarari lehentasuna emango zaio eta zeharlerrotasunez jardungo du lanean. Ikasle eta herritarren ahalduntzea izango da helburu nagusia.

4. IBILBIDEA

UEMAk azken urteetan herriz herri tailerrak eman izan ditu arnasmuneen ideia zabaltzeko eta herritarrak ahalduntzeko asmoz. Ahalduntze honen helburua, ikasleek, dagokien lekuan eusle papera hartzea izan da. 2014an, DBH4ko arnasmuneen tailerra ikasleentzat prestatu zuten teknikariek. Hala, esperientzia pilotu moduan lau ikasgelari eman zitzairen launa orduko tailerra. Bertan, lehenbizi, arnasmuneei buruzko bideo dibulгатibo bat erakutsi zitzairen, eta, jarraian, euren herria arnasmunea ote zen hausnartu zuten.

Tailer hauen helburua, ikasleek euren errealitate soziolinguistikoaz jabetzea zen batetik, eta, eguneroko bizimoduan dituzten hizkuntza ohiturak identifikatzea bestetik. Horren ondoren, jarrerren arrazoiak bilatu behar zituzten, autodiagnostikoan murgilduz. Azkenik, euren jarrerak aktibatuzeko dekalogoak prestatu zituzten.

Besteak beste, hobetzeko puntuen artean metodologia didaktikoa zegoela baloratu zen amaieran. Esate baterako, ikasleei denbora luzez hausnarketa zabalak egiteko esatea ez zela oso eraginkorra ondorioztatu zen, eta arreta bideratzeko beste teknika batzuk erabili behar zirela. Dena den, bai ikastetxetik eta bai UEMAtik oso modu positiboan baloratu zen ikasgelarako urratsa eman eta lanketarekin hasi izana.

2015eko ekainean, UEMAren Hezkuntza Proiektuaren ildoarekin bat eginez, Xabi Aizpurua Ugartek Master Amaierako Lana defendatu zuen *Euskararekiko pertzepzio soziolinguistikoa nola landu udalerrri euskaldunetako ikasleekin: hizkuntza ekologia eta arnasmuneen ideia* izenburupean. Lan horrek, DBHko ikastetxeetan zeuden beharrak identifikatzen zituen eta erantzuteko jarduera sorta bat proposatzen zuen.

UEMAk jarritako helburuak askotarikoak dira. Horietako batzuk, epe motzean ebaluagarriak

izan daitezke ikerketak frogatu duen moduan; beste batzuk, ordea, ezin dira emaitza kuantitatibo batzuetan bildu eta hezkuntza munduko eragileen iritzi kualitatiboa erabili da bere balioa neurtzeko.

Ikerketaren emaitzetatik abiatuz, Arnasguneen Hezkuntza Proiektua sortu zen 2016-2017 ikasturtean. DBH 3. eta 4. mailetarako unitate didaktiko bana, sei jardueraz osatua bakoitza, herriz herri irakasleak mintegi bidez formatu ziren eta materiala banatuta haiek ari dira materiala lantzen ikasgeletan. DBHtik haratago zabaltzea interesgarria zela ikusi zen, eta zabalkundearekin jarraitzea erabaki zen, lehenengo Batxilergora eta ondoren HH eta LH ra.

2019.urtean orain arteko materialak gaurkotu ditugu; bai edukiz, eta baita formaz ere. Era erakargarri eta erabilgarri batean unitateak webgunean txertatu ditugu, eta ikus-entzunezko material berria ere sortu dugu.

5. HIZKUNTZA EKOLOGIA ETA ARNASGUNEAK

Bi esparru kontzeptualetan oinarritzen da UEMAren hezkuntza proiektua:

- Einar Haugen hizkuntzalariaren (The Ecology of Languages, 1972) hizkuntza ekologia teoria.
- Joshua A. Fishman hizkuntzalariaren (Reversing Language Shift, 1991) arnasmune ideia.

Hizkuntza-ekologia hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen elkar eraginen azterketa da. Horretarako, ekologiaren metafora erabiliko dugu; alegia, izaki bizidunak bezala, hizkuntzak ere elkarrekin bizi dira, eta elkarri eragiten diote hizkuntzarteko eremu geografiko batean.

Hizkuntza ekologiaren kontzeptuak dira, besteak beste, aniztasuna, iraunkortasuna edo subsidiaritatea. Hala, ekologian gertatzen den modu berean, munduko hizkuntza aniztasuna modu positiboan baloratzen da hizkuntza ekologian, eta horixe da oinarri-oinarrian dagoen pentsamendua.

Logikoa denez, aniztasuna onuragarria baldin bada, aniztasun hori mantentzea eta zaintzea beharrezkoa izango da hizkuntzen alorrean ere. Izan ere, hizkuntza guztiek balio berbera dute, bakoitzak mundua interpretatzeko bere modu propioa baitu. Horregatik, planetako hizkuntz aniztasuna mantentzeko neurriak hartu behar dira, hizkuntza baten iraunkortasuna ez baitago soilik hizkuntza horren baitan, baizik eta ekosistema soziokulturalaren baitan.

Nola ziurtatu guztien iraupena? Batez ere, ukipen egoera horren ondorioz ahultze bidean eta egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntzari, nola bideratu etorkizun orekatua?

Ildo horretatik, ezinbestekoa da hizkuntza hori nagusi izango den gune geografikoak egotea: hizkuntzaren arnasmuneak. Gune horietako biztanle gehienek dakite hizkuntza gutxituan hitz egiten, hizkuntza hori normaltasunez erabiltzeko baldintzak daude eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa naturaltasunez gertatzen da.

Beraz, arnasmuneak ezinbestekotzat jotzen diren unetik beretik, horiek mantendu eta elikatu beharko dira.

Zentzu horretan, hartu beharreko neurrien helburuetako bat hiztunek euren berezko hizkuntza balioan jartzea eta egoerak orekatuta irautea da. Neurrietako bat subsidiaritate printzipioa deitu zaiona da: berezko hizkuntzan egin daitezkeen funtzioak ez egitea hizkuntza hegemonikoan, eta, hala, hizkuntzari funtzio multzo garrantzitsu bat emanda, beharrezkoa eta erabilgarria izango da hiztunentzat; eta, berezko transmisioa bermatuko dute. Horrek hizkuntzari funtzionalitatea eta interesa emango dio hizkuntzari, beharrezko bihurtzen du etorkizunera begira, eta modu horretan, egoera linguistiko orekatua iraunkorra bihurtuko litzateke.

Hori horrela, euskararen arnasmunetzat jotzen dira udalerrri euskaldunak, hots, euskararen indizean gutxienez biztanleen %70era iristen diren herriak. Udalerrri euskaldunak euskararen normalizazioan estrategikoak dira, esparru guztietan normal erabiltzearen ondorioz hizkuntza berez indarberritzen delako, eta, honela, hizkuntz normalizazioaren eredu dira.

Laburbilduz, hizkuntza ekologiak hizkuntzen arteko harremanak aztertzen ditu eta gainera desoreka egoerei erantzun nahi die. Horretarako, aniztasuna balioetsiz, hizkuntzen iraunkortasuna du helburu, eta, bide horretan, ahulenaren aldeko neurriak hartzeari beharrezko eta zilegi deritzo. Hizkuntza indarberritze horretan, arnasmuneak ezinbestekoak dira eta, euskararen kasuan, rol hori udalerrri euskaldunek betetzen dute neurri handian. Beraz, udalerrri horietako herritarrak ahalduntzeko bidean doazen hizkuntza politikak egitea komenigarria da, hizkuntza komunitate osoaren iraunkortasuna luzaro bermatu nahi bada.

6. HEZKUNTZA PROIEKTUAREN EDUKIA

6.1. HAUR HEZKUNTZA

UEMA, HH proiektua lantzeko elkarlanean aritu da Katxiporreta kooperatibarekin eta Miren Amuriza bertsolari eta irakaslearekin. *Euskara bilduma* abiarazi zuten Katxiporretak eta Elkar argitaletxeak, Amurizak idatzitako lau liburuekin. Liburu horien edukia idazteko UEMAREN lana eta aholkularitza kontuan izan zuen Amurizak, eta UEMAK unitate didaktikoak prestatu ditu liburu bakoitzaren inguruan, euskara da lau liburuen gaia, baina bakoitzak arlo ezberdin batetik jorratzen du.

Pirritx, Porrotx eta Marimototxen ipuinen laguntzarekin hainbat gai/kontzeptu landuko dira haurrekin: Hizkuntza bakoitzak aniztasunari egiten dion ekarpena; hizkuntzaren transmisioaren garrantzia; euskara ikasteak mundua ikusteko beste era bat zabaltzen duela; arnaguneak eta hizkuntza ekologia bezalako kontzeptuetara hurbilpena...

6.2. LEHEN HEZKUNTZA

UEMAK 2017an zehar garatu zuen Lehen Hezkuntzarako proposamena. LHn lantzeko 2 unitate prestatu zituen UEMAK. LH 4rako bat eta LH 6rako beste bat. Guztira 8 saio daude prestatuta maila bakoitzean launa saiotan lantzeko.

LH4. Etxean eta kalean berdin-berdin jolasean.

Zer da hizkuntza? Zertarako balio du? Norbere hizkuntza biografia ezagutuko dugu, eta etxean ez ezik herrian ere euskarak zer toki duen aztertu.

LH6. Ukazioa legetzat hartuz, beti aurrera joatea...

Euskal Herriko egoera soziolinguistikora hurbilpen bat egingo dugu ikasleekin eta arnasguneen kontzeptua ere landuko dugu

6.3. DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)

Seina unitateko eskaintza dago DBH3 eta DBH4 mailetarako. Jarduerak material didaktiko anitza dute: irakasleen eta ikasleen fitxak, PPTak, fitxa berezituak, ikus-entzunezkoak, mapak, atal osagarriak... eta unitateak garatzeko moduak zehaztuko du jarraipen sistema bera. Jarraipen sistema pertsonalizatua izango da, malgutasuna eskaintzen baita unitateak garatzeko, ikastetxe bakoitzak bere egutegi akademikoaren arabera txertatu dezan egutegian. Batzuk tutoretzetan landuko dute, beste batzuk euskara arloan edota departamentu desberdinetatik ere landu daiteke, zeharlerrotasuna emanaz gaiari, ikasleentzat irakasle erreferenteak area- gotuz eta ikastetxearen norabidea markatuz.

UEMAk unitate didaktikoen inguruko formazio saioak eskaintzen dizkie irakasleei eta irakasleak dira jarduerak ikasgelan txertatzeaz arduratzen direnak.

DBH 3 rako 6 unitate daude eta horrela laburbiltzen dira:

Zer da bizirik egotea?

Unitate honetan biziraupena eta kalitatezko iraunkortasunaren desberdintasuna ikusiko dugu, eta hizkuntzen bizi-kalitatearen garrantzia landuko dugu.

Ez dira galtzen boligrafoak bezala

Hizkuntzen galera prozesuak aztertuko ditugu, berez ez direla galtzen azpimarratuko dugu. Unitate honetan euskaraz bizitzeagatik jasandako errepresioaren testigantzak ere ezagutuko dituzte ikasleek.

Gora ta gora!

Hizkuntzen berreskuratze prozesuak posible direla eta horretan herritarren nahia ezinbestekoa dela ikusiko dugu.

Desberdina izatearen indarra

Globalizazioaren arriskuak aztertuko dira unitate honetan; baina, era berean, euskaraz bizitzeak mundura zabaltzeko aukera ugari ematen dituela nabarmenduko dugu.

Zer mailatan zabilta?

Norbere herriaren egoera soziolinguistikoa ezagutzea da unitate honen helburua, eta herri euskaldunen lidergo rola inguruan hausnarketa eragitea

Non daude nire arnasmuneak?

Arnasmunen kontzeptuan sakonduko dugu, eta hauek eguneroko bizimoduarekin lotuko ditugu. Ikasleek euskaraz funtzionatzen ez duten tokiak identifikatuko dituzte eta horiek aldatzeko aukerak eta inplikazioa bultzatuko dira.

DBH 4an lantzeko ondorengo beste sei unitate proposatzen ditugu:

Burubeltz konpartsa

Unitate honetan Euskal Herriko kultur aniztasuna landuko dugu; etorriberriek euskararekin ze harreman duten aztertuko da, eta era berean integrazioa eta elkarbizitza kontzeptuen inguruko kontzientziak ere landuko da.

Hizkuntza ekologia

Hizkuntza ekologiaren diskurtsoa ezagutuko dugu: hizkuntzen aniztasuna, iraunkortasuna eta babes neurriak hartzearen garrantzia.

Lurralde bat arnas-berritzeko

Arnasgune funtzionalak eta geografikoak desberdinduko ditugu. Ikasleei euren eragin ahalmenez ohartarazi nahi zaie unitate honetan, herri euskaldun bateko herritar izatearen garrantzia eta eredugarritasuna nabarmenduz.

Atsegin dugu ahoz ahokoa

Arnasguneetako herritarren jokabideak aztertuko ditugu, eta jarrera pertsonalek dauzkaten eragin kolektiboak ikusi. Hizkuntza eskubideen gaia ere landuko da unitate honetan.

Soilik eta bakarrik

Subsidiaritate printzipioaren gainean hausnartuko dugu: euskaraz egin daitezkeen funtzioak ez egin gaztelaniaz. Elebitasun orekatuaren aurkako argudioak ere landuko ditugu, ezin dira era berdinean tratatu hizkuntza gutxitua eta hegemonikoa.

Berezkoa ez da ofiziala eta ofiziala ez da berezkoa

Hizkuntzen ofizialtasuna eta berezkotasuna ezberdinduko ditugu; berezkoa izateak euskarari ematen dion lehentasunean azpimarra eginez.

6.4. BATXILERGOA

UEMAko teknikariek emango dituzte saio hauek. Ordu eta erdiko 2 saiotan dago antolatua edukia. Materiala: ikus entzunezkoak, fitxak, ariketak...

-Helburuak:

Ikasleen pertzepzio soziolinguistikoan eragitea. Euren hizkuntza praktikak eta herriko egoeraren inguruko hausnarketa bultzatzea.

Udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioan duten funtzio garrantzitsua azpimarratu eta zeregin horretan protagonista direla ikustaraztea.

Ikasleak euskal hiztun moduan kontzientzia eta ardura hartzea.

7. HAINBAT TAILER OSAGARRI

Maila ezberdineko ikasleentzako zein beraien gurasoentzako tailerrak eskaintzen ditu UEMAK, proiektuari osagarritasuna emateko asmoz. Besteak beste:

7.1 ISPILUARI BEGIRA

LH2ko hurrei eta euren gurasoei bideratutako tailer honetan arnasmeneen garrantziaz jardungo dugu. Gurasoek hizkuntzaren garapenean duten eragina nabarmenduko dugu, eta aldi berean ume zein helduok dauzkagun hizkuntza hautuez hausnartuko dugu.

Ariketa praktikoak zein teoria partekatuko ditugu. Teoria, batik bat, gurasoentzat azalduko dugu. Horrez gain, bideoak eta abestiak erabiliko ditugu. UEMAKo bi teknikarik egingo dituzte dinamizatzailerak.

Lehen ordubetean gurasoak eta haurrak bananduta egongo dira bi taldetan. Bigarren zatian, guztiak batera egongo dira.

7.2 BAGOAZ TAILERRA

Ezaugarri konkretu batzuetako herrietara bideratutako tailerra da. UEMAKo teknikariek gidatuko dute tailerra, ordu beteko saioan eta jolas eta ariketa ezberdinen bitartez.

Udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioan duten funtzio garrantzitsua azpimarratzea eta zeregin horren protagonista bihurtzea. Udalerrri euskaldunetako herritarrek daukaten lidergo natural horren kontzientzia hartzea da xedea.

7.3 BIXITAILERRA

DBH1 eta DBH2ko ikasleentzat prestatutako tailerra da. Erakusketa baten bidez arnaguneen bilakaeraren inguruko informazioa emango zaie ikasleei eta era didaktiko batean aurrera begirako gakoan inguruan hausnartuko da haiekin. 55 minutuko tailer honen bidez, era berean, ikasleen hizkuntza ohituren inguruan ere gogoeta bultzatu nahi da.

8. HEZKUNTZA EZ ARAUTUA

UEMAren hezkuntza proiektua hezkuntza araututik zabaldu asmoz, hezkuntza ez arautura saltoa egiteko erabakia hartu genuen, horretarako, 2017an Orioko aterpetxean asteburu pasa bat antolatu genuen udalerrri euskaldunetako 50 gazterekin. Izan zuen arrakasta ikusita, hurrengo urtean, 2018an, Zestoako Sastarrain baserri eskolan udalekua antolatu genuen eta bertan 22 gazte elkartu ziren. Aurten, 2019an, Usurbiletik Arantzara antolatu dugun txangoan 60 gaztek hartu dute parte.

HELBURUAK:

“Arnasguneen hezkuntza proiektuari integritasuna emanez hezkuntza ez-arauturako eskaintza luzatzea, nerabeak euskal hiztun gisa sentibilizatu, kontzientziatu, aktibatu eta ahalduntzeko. Euskaraz bizi, sortu, elkarbanatu eta euskararen arnasa zabaltzeko agente bilaka daitezen”.

- Udalerrri euskaldunetako gazteek elkar ezagutzea, sareak eratzea.
- Euskaraz bizi diren gazteak inertziatik kontzientziarako jauzia emanda efektu biderkatzailea probokatzea, euskararen lurgunea hedatzea.
- Euskaraz gozatzea, euskara gozatzea.

JOMUGAK:

- Udalerrri euskaldunetako 14-18 urteko gazteei dago zuzendua.
- Parte hartzaileen artean lurraldetasuna bermatzea bai hezitzaileen eta baita gazteen aldetik ere; EAEko zein Nafarroako gazteak erakartzea.
- Sexu genero aldetik oreka mantentzea hezitzaileen eta gazteen artean.

- Kalitatezko aisialdi eskaintza bermatzea: gazte, guraso eta hezitzaileen balorazioak oinarri hartuta pixkanaka proiektua sendotu eta hobetzen joatea.
- Eskaria beteko duen eskaintza zabala egitea, ahal den heinean.